



Lan deialdia: Prestakuntza Arlorako teknikaria

Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko institutu mistoa da. Hegoaren misioa da gizarte aldaketan eragitea eraikuntzaren, proposamenaren eta ezarpenaren bitartez, betiere pentsamendu kritikotik, esparru teorikotik, giza garapenaren prozesu eta beste estrategietatik eta lankidetzeta eraldatzailetik abiatuz bizitzaren iraunkortasunerantz joateko.

Hegoako Prestakuntza Arloak garapenari eta lankidetzari buruzko graduondoko ikasketak eta unibertsitate prestakuntzako beste irakaskuntza programa batzuk eskaintzen ditu. Helburua garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren esparruan gizarte ehuna indartzeko gaitasunak sortzea da. Gaur egun, Prestakuntza Arloan lan egiteko eta gure Plan Estrategikoan bildutako hainbat lanetan laguntza emateko pertsona baten bila gabiltza.

Lanpostua: PRESTAKUNTZA TEKNIKARIA

Lanpostuaren helburua: *Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta eta Globalizazioa eta Garapena* master ofizialen kudeaketa; eta proiektuen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioan laguntza ematea.

Eginkizunak:

- *Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta eta Globalizazioa eta Garapena* master ofizialen batzorde akademikoari kudeaketan eta arlo teknikoan laguntzea:
 - ✓ Prestakuntza eskaintza hedatzea.
 - ✓ UPV/EHUko idazkaritzari laguntza ematea izen emateak eta matrikulak jasotzean.
 - ✓ Irakasleenganako arreta eta akten kudeaketa.
 - ✓ Ikasleenganako arreta eta Master Amaierako Lanen koordinazio administratiboa.
 - ✓ Praktiken programaren kudeaketa eta mintegien antolaketa.
 - ✓ Adierazleen jarraipenerako aldizkako inkestak egitea.
 - ✓ Hornitzaileen eta ordainketa dokumentuen kudeaketa.
 - ✓ Proposamenak eta txostenak egitea.
- Prestakuntzako jardueren antolaketa:
 - ✓ Prestakuntza beharrak identifikatzea profilen arabera.
 - ✓ Curriculum sareak egitea.
 - ✓ Ikastaroak eta jardunaldiak kudeatzea.
- Kudeaketan laguntza ematea:
 - ✓ Dokumentazio teknikoa, administratiboa eta ekonomikoa prestatzea diru laguntzen deialdietarako.
 - ✓ Diru-laguntzen eta jasotako laguntzen justifikapena txosten narratibo, ekonomiko eta finantzarioen bitartez.



Eskatutako profila:

- Beharrezko titulazioa: gradua edo lizentziatura, ekonomiaren edo enpresen administrazio eta zuzendaritzaren arlokoa ahal izanez gero.
- Garapenaren eta nazioarteko lankidetzan eta/edo hurbileko diziplinetan masterra (feminismoak, giza eskubideak, etab.).
- Aurretiazko esperientzia prestakuntza programen kudeaketan, unibertsitatearen eremuan ahal izanez gero.
- Lankidetzarako eta/edo gizarte eraldaketarako proiektuen zikloaren kudeaketan esperientzia. Esparru Logikoa menderatzea.
- Pertsonen arteko harremanetarako malgutasuna eta erraztasuna, baita publiko desberdinekin interakzioa izateko ere.
- Euskara oso ongi hitz egitea (CI edo gehiagoko maila ofizialki akreditatuta izatea).
- Ingelesa oso ongi hitz egitea.
- Office paketea ongi ezagutzea (Word, Excel, PowerPoint...).
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologietara egokitzeko gaitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Planifikatzeko eta antolatzeko gaitasuna.

Kontuan hartuko dira:

- Kontabilitateari buruzko ezagutzak.
- Unibertsitatearen esparruko garapenaren nazioarteko sareak ezagutzea.
- Prestakuntza zehatza feminismoei, garapeneko genero ikuspegiari eta abarrei buruzkoa.
- Hegoarekin izandako aurretiazko elkarlanak.

Lanpostuaren baldintzak:

Aldi baterako kontratua, 2021eko abenduaren 31 arte (finantzazioaren arabera luzatu ahalko da)

Jardunaldi osoa

Egoitza: Bilbo

Ordainketa: Hegoaren soldata taulen arabera

Hasteko data: Maiatza - ekaina.

Hautaketarako prozedura:

Interesatuta dauden pertsonak beren CVa bidali beharko dute personal@hegoa.info helbide elektronikora, gaian "Prestakuntza Arlorako teknikaria" jarriz.

CVak jasotzeko azken eguna: **2021eko apirilaren 23a, ostirala**

Idatzizko proba egingo da.